



B. Kortabarría

Beñardo Kortabarría

Argi Urteak

Unibertsoa Donostian

Nor ez da gau epelean belar gainean jarrita zerura begira egon? Nork ez dio horrelakoetan erantzunik gabeko galderak bere buruari egin? Nora ote doa izartxo hura? Eta abiada ikusgarrian igaro den beste hori? Norbait begira ote dago hor goitik? Zein tamainatakoa da unibertsoa? Nola eratu zen? Nozbait bisitatu ahal izango dut izar horietakoren bat? ... galdera zailak, erantzuten zailak guztiak eta erantzunik gabekoa bakarren bat. Gizakia betidanik aritu da erantzun bila, eta denboraren poderioz, garapenaren bidean, kez karen bat edo beste argitu ahal izan du.



**Hondarrez betetako eskua unibertsoko
antologia da.**
Anonimoa

Izar-hautsa gara...

Bidaia elkarreragilea unibertsoaren historian zehar

Aurrez egindako galdera horietako batzuek badute erantzuna unibertsoaren aurkikuntzari Miramar jauregian eskaini zaion gunean, gune elkarreragilean. Izan ere, azaroaren 15a arte ikusgai dago Donostian *Argi Urteak* erakusketa, unibertsoari eta espazioaren ikerketari buruzko erakusketa elkarreragilea.

Esan bezala, Miramar jauregiko egoitza dotorean dago *Argi Urteak* erakusketa. Sarrera bera deigarria da, jauregiko lorategien berdetasuna utzi eta norbera bat-batean mundu berrian sartzen delako, Miramar jauregiko sotoan, kolpe batean eguna gau bihurtuta.

Barruan, erakusketa hiru gelatan banatzen da. *Lehen Begiratuan* izenburua du erakusketaren aurreneko zatiak, astronomiaren hastapenei eskainitakoak. Garai hartan unibertsoa nola ikusten zuten ikas eta ikus daiteke bertan. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako paneletan eskaintzen da informazioa; ondoan, ematen den informazioa egiaztatze-ko balio dezaketen tresnak ikus daitezke eta, kasu batzuetan, erabiltzeko aukera ere badago. Beraz, teoria praktikara eramanda. Eklipseak, egutegiak, orduak, urtaroak, sextantea, Ilargiaren faseak, maren gorabeherak, grabitazio-legea, argiaren deskonposaketa... teoriatik praktikara eramanda.

Espektroskopiaren asmakizunaren bidez, astronomiatik astrofisikarako bidea egin zuen zientziak. *Argi Urteak* erakusketak jauzi bera egiten du lehen gunetik bigarrenera. *Bigarren begirada* izena du astrofisikari eskainitako guneak. Bertan, besteak beste, argia uhinez osatzen dela egiazta daiteke, maiztasunaren eta energiaren arteko harremana ulertu, izarren nortasunaz eta bizitzaz jabetu, termometro infragorria erabili, erlatibitatearen teoriaren azalpena aztertu, eguzki-sistema ikertu, ... eta etorkizunera begira jarri.

Etorkizunari eskainitako tartean, erakusketako hirugarrenak, *Bideak Urratzen* du izenburua. Haste-ko, 300 diapositibez osatutako diaporama ikusgai, 10 minutu inguruko iraupeneko diaporama. Ia etenik gabe, ikuslearen begien aurrean, unibertsoaren hainbat irudi agertzen dira, azalpenez eta musikaz lagunduta. Lasai hartuz gero eta irudimen-apur batekin,



B. Kortabarría



**Sarrera bera deigarria
da, jauregiko lorategien
berdetasuna utzi eta
norbera bat-batean
mundu berrian sartzen
delako, Miramar jauregiko
sotoan, kolpe batean eguna
gau bihurtuta.**

espaziuntzi batean senti daiteke bisitaria, bidaia zoragarria egiten. Bidaia amaituta, komunikabideetan bakarrik ikus daitezkeen astronauta-jantzi bat, eta hainbat satellite eta Ariane espaziuntziaren maketak agertzen dira begi-bistan.

Irten aurretik iritziak, graffitiaren edo eskupapere bidez, emateko aukera eskaintzen da, aukeran biak. Espazio ilunetik irtenda, eskailerak igo eta gero, berriro Miramar Jauregiko lorategira, egunak gaua bultzada bortitz baten bidez bidali izan balu bezala.





Argi Urteak erakusketaren bidaia

Zientzia XXI Elkartearen ekimenez dago unibertsoari eskainitako erakusketa Miramarren. Aipatu elkarteak, Euskal Herrian museo elkarreragile bat jartzeko helburuaz sortu zen, bertako kide diren Sole Martinek eta Carmen Bronchalo-k diotenez. Elkarteak aspalditik omen zuen pentsatuta horrelako erakusketa Euskal Herrira ekartzea, nolabait eta azaletik bazen ere, zientzia-museo bat nolakoa izan zitekeen jendeari erakusteko: ikasteko filosofiarekin sortzen den museoa, tresnak erabiltzeko aukera eskaintzeaz gain, bisitarien partaidetza eskatzen duena.

Zientzia XXI Elkarteak berak landu zuen Euskal Herrian Zientzia Museoa sortzeko proiektua. Orain urte eta erdi inguru proiektua, edo ideia, interesa izan zezaketen erakunde pribatu zein publikoetan aurkeztu zen. Ideia hor zegoela, Kutxak hartu zuen bere gain. Beraz, *Argi Urteak* erakusketa, Zientzia XXI Elkartearen eta Kutxaren arteko elkarlanaren ageriko lehen emaitza dela esan daiteke. Soleren eta Carmenen arabera, unibertsoaren gorabeheraz jabetzeaz gain, etorkizuneko Zientzia Museoaren ideiatxo bat egiteko balio dezake egun hauetan Miramar jauregian dagoen erakusketa honek, berez horrelako erakusketak handiagoak eta modulu gehiagoz osatzen baitira. Unibertsoaren gaia erakaragarria izanik, merkatuan zegoena ikusita eta muntaia handirik eskatzen ez zuelako ekarri dute *Argi Urteak* Miramarrera.

Teknologia berriak, material berriak, komunikazio-teknologia, ingurugiroa, ekologia, mekanika, elektrizitatea, planetario bat... eta beste hainbat gai garatuz, 2000. urterako Zientzia Museoa zabalik izango omen da.



Beraz, *Argi Urteak* erakusketa, Zientzia XXI Elkartearen eta Kutxaren arteko elkarlanaren ageriko lehen emaitza litzateke.



B. Kortabarría

Argi Urteak datuetan

- ✓ Frantziako, La Villette Zientzia Hirian egindako erakusketa da. Europako Agentzia Espazialak, ESAk, parte hartu du bertan.
- ✓ Irekita dago azaroaren 15a arte, goizeko 10etatik arratsaldeko 8ak arte.
- ✓ Gipuzkoako ikastetxe gehienetako ikasleek ikusi ahal izango dute, gidatutako bisitak hitzartuta baitaude.
- ✓ 27 moduluk osatzen dute erakusketa.
- ✓ Erakusketa ganoraz ikusteko ordu eta erdi inguru behar da. Gehienez batera 75 lagun sar daitheenez, baliteke txanda itxaron behar izatea.
- ✓ Laguntza behar izanez gero, gidariak daude erakusketan.
- ✓ Itsuek ere badute erakusketa ikusterik, Braille sisteman ere badutelako. Eskatzea besterik ez dago.

Gizakia naiz, gutxi irauten dut eta gaua ikaragarria da, baina gora begiratzen dut: izarrek idatzi egiten dute aditu gabe, ulertu egiten dut.

Octavio Paz